

DRAMATIZAZIOA

Dramatizazioa jolasaren pedagogiaren markorik zabalenean kokatzen da. Helduei haurren mundutik gehien txunditzen gaituena beren aberastasun espresiboa da (keinuak, begiradak, jarrerak, tonuak, ahotsak, formak, koloreak, erritmoak, mugimenduak), eta adierazpen horiekin egiten dituzten jolas sinbolikoak.

Berezko joera hori aprobetxatuz, dramatizazioak adierazpen mota guztiak koordinatzea du helburu: ahozko adierazpena, gorputz-adierazpena eta adierazpen erritmiko-musikala. Horrez gain, sormena indartzen du.

Dramatizazioaren bidez adierazpena, sormena eta haurrek besteekin dituzten harremanak bultzatzen dira.

Dramatizazioan, gorputza sentimenduak, emozioak eta premiak adierazteko erabiltzen dugu. Besteen sentimenduak eta emozioak ere interpretatzen ditugu. Dramatizazio-jolasak elkarrekintzazkoak dira; beraz, ikaskuntza soziala eta norberaren portaeraren ulermena sustatzen dute.

Eguneroko bizitzako egoerak antzezterakoan, paperak trukatzuz eta errealitatea aldatuz, haur asko ezintasun, lotsa, konplexu eta beste hainbat sentimendutik askatzen dira, eta galdutako konfiantza eta segurtasuna berreskuratzen dute.